

Izenordaina



Bost minutuko
galdia

- 1 Erreparatu irudiari eta kopiatu berdez dauden hitzak koadernoan. Zer dira?

Eta, zer egingo duzue **zuek**?

Gu ikusleak izango gara!



Izenordainak izenaren ordezkoko hitzak dira:

Singularra	Plurala
ni	gu
hi/zu	zuek
hura	haiak

Adibidez: **Kepak eta Olaitzek** barre egin dute. → **Haiek** barre egin dute.

Ni magoa izango naiz eta **zu**, nire laguntzailea!

- 2 Lotu esanahi bereko esaldiak eta azpimarratu izenordainak.

- Josunek eta biok praka moreak ditugu. ☐ ☐ Zuek oparia erosi duzue.
- Harkaitzen lehengusua Bilbon bizi da. ☐ ☐ Haiek berandu heldu dira.
- Idoiak eta zuk oparia erosi duzue. ☐ ☐ Hura Bilbon bizi da.
- Umeak berandu heldu dira. ☐ ☐ Guk praka moreak ditugu.

- 3 Lotu.

- Ni ☐ ☐ basoan galdu gara.
- Zu ☐ ☐ liburutegian egon ziren.
- Hura ☐ ☐ presaka etorri zara.
- Gu ☐ ☐ logura naiz.
- Zuek ☐ ☐ ibaian bainatu da.
- Haiek ☐ ☐ artistak zarete.

4 Osatu izenordainak erabiliz.

- ... zure aldamenean eseri dira.
- Atzo ... Gasteizko katedralean egon zineten.
- Kaixo! ... Begoñaren ahizpa zara, ezta?
- ... musika-talde bateko abeslaria da.
- ... antzezleak izango gara.

5 Ordeztu azpimarra duten hitzak izenordainekin.

- Naiara eta biok zinemara goaz.
- Olatz eta Aitzol amarekin etorri dira.
- Aimar eta zu okerreko bidetik joan zarete.
- Pello dardarka atera da uretatik.
- Galder, zatoz hona!

6 Berridatzi, izenordainen ordezkiz izenak jarriz.

- **Haiek** Getariako arrantzalerik gazteenak dira.
- **Gu** parke ondoko etxean bizi gara.
- **Zu**, irten zaitez azkar hortik!
- Eta **hura**, non jaio zen?



Jolastu hizkuntzarekin!

7 Nolako nahastea! Berridatzi, izenordain bakoitza berari dagokion esaldian jarriz.

- Zuk ura bota dut pitxerrera.
- Guk ikuskizuna antolatu duzue.
- Nik magia atsegin duzu.
- Zuek hitz magikoak esan ditugu.



Trukoa aurkeztuko diegu ikaskideei.

- Ekarri eskolara trukoa egiteko behar duzuen materiala. Erabaki zer taldekidek (batek edo gehiagok) egingo duen aurkezpena.
- Aurkeztu trukoa beste taldeei.

